

Dokumentu honen bidez, 2025eko abenduaren 29an, izenburuan jasotzen diren udal talde politikoek elkarrekin adostutako partida ekonomikoak eta konpromisoak jasotzen eta berretsi egiten dituzte. Akordio horiek 2026ko Pasaia Udal Aurrekontuetan txertatzeko eta, halaber, 2026. urtean zehar kontuan hartu, garatu eta gauzatzeko konpromisoa hartzen dute sinatzaileek.

Akordio politiko honen ondorioz, eta adostasun horiek aintzat hartuta, EAJ udal taldeak abstentzioaren aldeko jarrera hartuko du 2026ko udal aurrekontuen onespenean.

1. ZUZENKETA

Herriko Kultur ekosistemaren Plan Estrategiko berria garatzeko diru partida osatzea. Plan honek, besteak beste, liburutegiek duten sen komunitarioa aztertu eta indartzea proposatuko du.

Partida zkia.	Partidaren izena	Proposatutako aurrekontua	Zuzenketa	Amaierako aurrekontua
05.227.07.334.01	Kultur Diagnostika	25.000 €	+5.000 €	30.000 €

2. ZUZENKETA

ETSk Gure Zumardiaren urbanizazioa amaitzen duenean eta beharra antzematen bada, bertan kokatu beharreko hiri-altzariak finantzatzeko erabiliko da proposatutako iguera.

Partida zkia.	Partidaren izena	Proposatutako aurrekontua	Zuzenketa	Amaierako aurrekontua
09.609.01.153.00	Hiri-altzariak	10.000 €	+15.000 €	25.000 €

3. ZUZENKETA

Haur-parkeen partida handituko da sortzen diren beharrei zein parkeen eguneratzearekin jarraitzeko.

Partida zkia.	Partidaren izena	Proposatutako aurrekontua	Zuzenketa	Amaierako aurrekontua
09.609.03.153.00	Haur-parkeak	50.000 €	+30.000 €	80.000 €

4. ZUZENKETA

Zuzenketa honetan jasotako diru partida kirol-instalazioetan egin beharreko hainbat mantenu-lan finantzatzeko erabiliko da. Zehazki, 30.000 € Larrabide kiroldegian bertako erabiltzaileek eskatutako hainbat hobekuntza egiteko eta 15.000 € San Pedroko *Proisa* eremuko lur zakarra leuntzeko *Slurry* tratamendu baten bidez.

Partida zkia.	Partidaren izena	Proposatutako aurrekontua	Zuzenketa	Amaierako aurrekontua
09.211.01.341.00	KMK eraikinak eta gainerako eraikuntzak	30.000 €	+45.000 €	75.000 €

3. ZUZENKETA

Udaltzaingoan gauzatu behar den obra finantzatzeko handituko da diru partida hau. Beharrezkoa balitz, gerakinetik osatuko da.

Partida zkia.	Partidaren izena	Proposatutako aurrekontua	Zuzenketa	Amaierako aurrekontua
09.622.01.920.00	Udal eraikinen berrantolaketa	20.000 €	+40.000 €	60.000 €

4. ZUZENKETA

2005etik berritu gabe dagoen Udal Gazte Plana berrituko da 3 ildo nagusituz: gazte politikak, osasun mentala eta emantzipazioa.

Partida zkia.	Partidaren izena	Proposatutako aurrekontua	Zuzenketa	Amaierako aurrekontua
<i>PARTIDA BERRIA</i>	Gazte Plana	0 €	+25.000 €	25.000 €

5. ZUZENKETA

Puntu ilunen azterlana berritzea eta kontutan hartu beharreko aspektuak definitzea.

Partida zkia.	Partidaren izena	Proposatutako aurrekontua	Zuzenketa	Amaierako aurrekontua
<i>PARTIDA BERRIA</i>	Puntu ilunen azterlana	0 €	+18.500 €	18.500 €

6. ZUZENKETA

Aparkaleku erregulatua non ezarri daitekeen eta ezartzea bideragarria ote den aztertuko da.

Partida zkia.	Partidaren izena	Proposatutako aurrekontua	Zuzenketa	Amaierako aurrekontua
<i>PARTIDA BERRIA</i>	Aparkaleku erregulatua jartzeko ikerketa	0 €	+30.000 €	30.000 €

7. ZUZENKETA

Diru partidaren handitzearekin Santa Anan egin beharreko leiho aldaketa finantzatuko da.

Partida zkia.	Partidaren izena	Proposatutako aurrekontua	Zuzenketa	Amaierako aurrekontua
09.227.90.334.01	KEEL Santa Ana	3.000 €	+7.000 €	10.000 €

8. ZUZENKETA

Zuzenketa honen zenbatekoa aparkatzeko espazio berriak topatu eta diseinatzeko erabiliko dugu, besteak beste, Antxo eta Donibaneke eremuan. Beharrezkoa balitz, partida gerakinetik osatuko da.

Partida zkia.	Partidaren izena	Proposatutako aurrekontua	Zuzenketa	Amaierako aurrekontua
08.643.01.151.00	Proiektuak eta zuzendaritzak	313.144 €	+ 20.000 €	333.144 €

10. ZUZENKETA

Momentu honetan sailetik lanketa batean murgilduta dauden arren, partida igoko da lanketa horren emaitzari modu irmoan erantzun ahal izateko.

Partida zkia.	Partidaren izena	Proposatutako aurrekontua	Zuzenketa	Amaierako aurrekontua
11.227.01.231.09	Indarkeri matxistarik gabeko jaiak	8.000 €	+ 7.000 €	15.000 €

AURREKONTUZ GAINDIKO KONPROMISOAK

Aurretik aipatutako emendakinak onartzeaz aparte, dokumentua izenpetzen duten alderdiek hurrengo aurrekontuaz gaindiko adostasunak hartu dituzte:

- Zolaketako kanpaina 2026an.** Inbertsioko partida handitzea aztertuko da behin 2025eko aurrekontuaren likidazioa jasotzen denean. Alde guztien artean adostuko da zein zonatan interbenitu behar den eta horretarako zehaztuko den diru-kopurua.
- Txirrinden aparkaleku estalia.** Urtearen hasieran Mugikortasun Jasangarriko plan berria idatziko du Pasaia Udalak. Behin plana martxan dagoela eta SPRIko urbanizazioan azken urratsak ematen direnean, Pasaia Udalaren lehen txirrinden aparkaleku estalia non kokatzea komeni den adostu eta lan horiek 2026an egitea adostu da.
- Illunbe AE.** Klubak behar dituen edukiontzien erosketari ekingo dio Udalak eta horren ondoren garatu beharreko hitzarmena edota harremana aldeon artean adostuko da 2026an.
- Antxoko Gure Zumardiaren urbanizazioa.** Egoera emango balitz eta udalak urbanizazio lanak edota hiri-altzariak osatu beharko balitu sinatzaileon artean adostuko da beharrezko kreditu aldaketa izapidetzea.

Pasaian, sinadura elektronikoaren datan

Loreto Osa Ocon
EAJ/PNV udal taldeko
bozeramailea

Julen Rodriguez Aboy
Podemos udal taldeko
bozeramailea

Iraitz Pazos Lapido
EH Bildu udal taldeko
bozeramailea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	AKORDIOA_EAJ-Emendakinak
CSV/EKS:	SINA05bf99d0-bec7-46ef-9716-4ea117853097